

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Garraio Partzuergoa**

«Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen zerga-ordenantza» ren aldatetaren behin betiko onespeneren iragarkia.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2025eko urtarrilaren 8ko, 4 zenbakidun, «Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiarien garraio publikoa emateagatik tasak arautzen dituen ordenantza fiskala» delakoaren 2. artikulua aldatzeko behin-behineko onspena jendaurrean jartzeko epeari hasiera ematen dion iragarkia argitaratu zen. Eta Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluekin bat etorritik, bost (5) eguneko epean jendaurrean egon ondoren, eta epe horretan behin-behineko onspeneren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, jarraian behin betiko onartutako Ordenantzaren 2. artikulua testu osoa argitaratzen da, honela idatzita:

**BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN TITULUEN ERABILTZAILEEI
BIDAIARI-GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA EMATEAGATIKO
TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA-ORDENANTZA**

2. artikulua. — *Subjektu Pasiboak*

Tasaren subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34. artikuluan aipatzen diren entitateak eta pertsona fisiko zein juridikoak, ordenantza honek arautzen duen zerbitzua eskatzen badute, edo zerbitzu horren onura edo eragina jasotzen badute.

Aurrekoa gorabehera, salbuetsita egongo dira CIE 10/OMS-2001ren arabera 2101, 2102, 2103, 2105 eta 2106 mugaketa-kodeak eta eurek eskatuta aintzatetsitako mendetasun-mailak dituzten %45eko edo gehiagoko desgaitasun intelektuala duten pertsonen laguntzeko pertsonak.

Eskaera Bizkaiko Garraio Publikoko Bezeroen Arretarako Bulego Integraletan aurkeztu beharko da. Interesdunek dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen agiriak ez aurkezteko eskubidea dutela ezartzen duen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoa betetzearen ondoretarako, Bizkaiko Garraio Partzuergoak, interesdunak aurka egin ezean, datuen bitartekaritza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuen bidez elektronikoki kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu eskabidea kudeatzeko beharrezkoak diren datuak eta dokumentuak, bereziki 2101, 2102, 2103, 2105 eta 2106 mugaketa-kodeak eta aintzatetsitako mendetasun-mailak dituzten %45eko edo gehiagoko desgaitasun-mailari dagoen baldintza betetzei buruzkoak.

Era berean, ordenantza honetan araututako garraio-zerbitzuaren onuradun diren edo zerbitzuaren eraginpean dauden erabiltzaileak salbuetsita daude, baldin eta 12 urte arte badituzte.

Aurreko atalean aipatutako salbuespena baliatu ahal izateko, interesdunek txartel pertsonalizatua izan beharko dute. Eragiketa hori aurrez aurre egin beharko da, aitarekin, amarekin edo legezko tutorearekin batera, Bizkaiko garraio publikoaren Bezeroaren Arretarako Bulego (BAB) integraletako edozeinetan.

Bilbon, 2025eko urtarrilaren 28an. — Zuzendari Nagusia, Roberto Muñoz García